



iii. Aspektua

iii.1. Aspektu burutugabea baldintza

hipotetikoetako protasian: *-tzen ba-* (v *-tuko ba-*)

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). Aspektu burutugabea baldintza hipotetikoetako protasian: *-tzen ba-* (v *-tuko ba-*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.),

Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=53&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, baldintza, burutugabea, -KO postposizioa, prospektiboa

Deskribapena

Euskaraz, baldintza hipotetikoa egiteko, baldintza adierazten duen perpausean, hots, protasian, *-tuko* aspektu prospektiboa erabili ohi da:

(1) Lortuko	balu,	poztuko	ginateke
lor.PTCP.PROS	BA.(3ABS).3ERG	poz.PROS	1PL.ABS.izan.PST.MOD

Hala ere, ekialdeko hizkera batzuetan, aspektu prospektiboaren orde z ,- $t(z)$ enaspektu burutugabea erabiltzen da (de Rijk 2008: 423):

(2)	Lortzen	balu,	poz	gintezke
	lor.IPFV	BA.(3ABS).3ERG	poz	1PL.ABS.edin.PST.MOD

Banaketa dialektala

Oro har, hizkera guztietan, protasiak adierazten duen egoera hipotetikoa lehenaldian gertatu bada, partizipio burutuarekin adierazten da (de Rijk 2008: 423):

(3)	Egin	balu
	egin.PTCP.PFV	BA.(3ABS).3ERG

Iragana ez diren bertze denborak adierazteko, aldiz, Hego Euskal Herrian *-tuko*aspektu prospektiboa erabiltzen da eta Iparraldean *-t(z)en*burutugabea (de Rijk 2008: 423). Euskaltzaindiak (1987: 380-381), ordea, mendebalde eta ekialdeko hizkeren artean jartzen du muga, Hualdek eta Ortiz de Urbinak bezala (2003: 270). Batetik, mendebaldeko hizkerak ditugu (Euskaltzaindia 1987: 381):

(4)	Etorriko	balitz,	poztuko	ginateke
	etor.PTCP.PROS	BA.(3ABS)	poz.PROS	1PL.ABS.izan.PST.MOD

Bertzetik, aspektu prospektiboa erabiltzen duten ekialdeko hizkerak daude (Euskaltzaindia 1987: 381, Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 270). Irizarrek (1997: 506) erraterako, honako adibidea biltzen du Arbonako (Lapurdi) hitzun bati entzunda:

(5)	Orai ehortzen balitz bezala duk
-----	---------------------------------

Epeldek (2004a: 22) Lapurdiko bertze herri baten lekukotasuna biltzentzen du, izan ere, eskualde horretan *-t(z)enda* baldintzako protasian etorkizuna egiteko morfema (Epelde 2004a: 22):

(6)	Gure xaarrek ikusten balute!
-----	------------------------------

Datu-basearen emaitzak

Euskaltzaindiak (1987: 380-381), de Rijk (2008: 423) eta Hualde eta Ortiz de Urbinak (2003: 270) errandakoa kontuan hartzen badugu, emaitzetan Hegoalde*vs.* Iparralde bereizketa egon beharko litzateke edo, gutxienez, mendebalde-ekialde hizkeren arteko banaketa. Mendebaldeko inkestatuen emaitzekin hasiz, denek aspektu prospektiboa darabilte. Erdialdeko hitzunek ere mendebaldekoen joera bera dute:*lortuko balu*. Nafarroako hitzunekin jarraituz, ekialde eta mendebaldeko hizkeren artean egon arren, mendebaldekoen alde egiten dute, Goizuetan, Mezkitzen, Urdiainen eta baita nafar-lapurteratik hurbilago dagoen Baztan eskualdean ere.

Ekialdean, nahiz eta bertako hitzunek aspektu burutugabea erabiltzea espero dugun, bi morfemak lekukotzen dira. Batetik, Oragarreko eta Ziburuko hitzun nafar-lapurterek *-tzen* burutugabea erabiltzen dute baldintza hipotetikoaren protasian, eta bertetik, ekialderen dagoen hizkeran (zubereraz) mendebaldean bezala prospektiboa erabiltzen da. Beraz, ekialdeko hitzunen artean ere dikotomia aurkitzen dugu.

Eztabaida teorikoa

Euskaltzaindiak (1987: 380) dioenari jarraituz, *-tukoeta -t(z)en* morfemak aspektua adierazten dute, gertakizuna (edo prospektiboa) eta ez-gertakizuna (edo burutugabea), hain zuzen. Dena den, baldintzako adizkiei atxikitzen dizkiegunean ez da adierazten duten aspektua kontuan hartzen, denbora baizik (Euskaltzaindia 1987: 380). Horrek erran nahi du bereizketa bitan egiten dela eta ez hirutan, aspektua kontuan hartzen bagenu gertatuko litzatekeen bezala (*erosten vs. erosi vs. erosiko*). Denborak agintzen duenez, *erosi balu* (lehenaldia) *vs. erosiko / erosten balu* (iragana ez dena) banaketa egiten da (Euskaltzaindia 1987: 380).

Ondorioz, erran genezake *-tukoeta-t(z)en* aspektu morfemak balio semantikoa galdu dutela eta hizkera bakoitzak bi morfema hauetako bat aukeratu duela iragana ez den bertze guztia adierazteko (Euskaltzaindia 1987: 380).

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina (eds.). 2003. *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.

Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*. Iruñea: Euskaltzaindia & UPV/EHU.

iii.2. Partizipiozko predikatuak: *-(r)ik, -ta (v -a)*

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Partizipiozko predikatuak: *-(r)ik, -ta (v -a)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=60&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditza, aspektua, partitiboa, partizipiozko egiturak, postposizioak

Deskribapena

Lehenaldi perfektiboan (1a) eta orainaldi perfektuan (1b) erabiltzen den partizipio burutuaren gainean partizipiozko beste forma bat sor daiteke *-a* atzizkia gaineratuz (2). Partizipiozko forma berriak esanahi erresultatiboa izaten du gehienetan, eta egitura predikatiboetan agertzen ohi da.

(1a)	Mahaia mahaia.ABS	apurtu apur.PTCP	zen izan.3ABS.PST
(1b)	Mahaia mahaia.ABS	apurtu apur.PTCP	da izan.3ABS
(2)	Mahaia mahaia.ABS	apurtua apur.PTCP.RES	da/dago izan.3ABS / egon.3ABS

Morfologikoki konplexuagoa den partizipiozko predikatu hori *izan* zein *egon* kopulekin batera agertzen da, baita perpaus iragankorretakoak diren **edun* eta *edukirekin* ere, eta numero komunztadura egiten du modifikatzen duen izenarekin (cf. 2 eta 3), adjektiboek bezala.

(3)	Mahaiaik mahaia.PL.ABS	apurtu-ak apur.PTCP.RES.PL	dira/daude izan.3PL.ABS / egon.3PL.ABS
-----	---------------------------	-------------------------------	--

Eredu orokorreko *-a* atzizkiaz gain, badira beste atzizki batzuk partizipio erresultatiboak eraikitzeko balio dutenak eta aldakortasun dialektala erakusten dutenak: *-(r)ik* eta *-ta*. *-Adun* partizipioak bezala, kopulekin batera ager daitezke egitura predikatiboetan, baina ez dute subjektuarekin komunztadurarik erakusten.

(4)	Mahaia mahaia.ABS	apurturik apur.PTCP.RES	da/dago izan.3ABS / egon.3ABS
(5)	Mahaia mahaia.ABS	apurturik apur.PTCP.RES	dago egon.3ABS

Gainera, *-(r)ik* eta *-tarekin* sortutako partizipioek ezin dituzte izenak zuzenean modifikatu izen sintamaren barruan; *-arekin* sortutakoek, bai ordea. Arrazoi horregatik, egile batzuek *-a* partizipioak adjektibozkoak direla proposatu dute, eta *-(r)ik* eta *-ta* partizipioak, aldiz, adberbiozkoak (Rebuschi 1984) edo postposiziozkoak (Artiagoitia 1995; Berro 2019a). Banaketa horren atzean atzizki bakoitzaren jatorria egon liteke: *-(r)ik* partitibo marka da gaur egun, eta ablatibo zaharra ere; *-ta eta* juntagailu kopulatibotik eratorria da (Krajewska 2012, 2013a), zeinak ondorengotasuna adierazten duen aditz burutuaren ondok.

Nolanahi ere den, semantikoki hiru partizipioek antzera jokutzen dute: gehienetan gertaera burutu baten ondorengo eta ondoriozko egoera adierazten dute (Berro 2019ab). Beste batzuetan, baina, adiera estatiboa edota esperientziala ere izan dezakete (Berro 2019ab): adiera estatiboan, partizipioak egoera bat adierazten du, ez nahitaez aurreko gertaera baten ondoriozkoa (Embick 2004) (6); esperientzian, aldiz, modifikatzen duen izenak nolabaiteko eskarmentua duela adierazten du, aurreko denbora tartean predikatuak deskribatzen duen gertakaria gutxienez behin indarrean egon delako (Comrie 1976; Iatridou et al. 2001/2003 beste batzuen artean) (7).

(6)	Atea ate.ABS	irekia/irekirik/irekita ireki.PTCP.RES	eraiki eraiki.PTCP	dute edun.3ABS.3PL.ERG	
(7)	(Ni) ni.ABS egona egon.PTCP.RES	Bilbon Bilbo.INE naiz/nago izan.1SG.ABS/egon.1SG.ABS	behin behin baino baino	gehiagotan gehiago.INE	egona naiz/nago

Azken irakurketa hori azken mendeetan ugarituz joan da, batez ere partizipioaren barruan ondoriozko emaitzarik ekartzen ez duten aditzak daudenean, esate baterako, egoera kognitiboak adierazten dutenak (*konturatu*), pertzepzio (*entzun*) eta komunikazio (*esan*) aditzak etab. (Krajewska 2012, 2013ab). Bestetik, interpretazio esperientziala lortu ere egiten da kopularen subjektua gertaera abiatu duen subjektuaren erreferentziakide denean.

(8)	(Ni) ni.ABS	pelikula pelikula	asko asko.ABS	ikusia/ikusita/ikusirik ikusi.PTCP.RES	naiz/nago izan.1SG.ABS / egon.1SG.ABS
-----	----------------	----------------------	------------------	---	--

Banaketa dialektala

Hiru atzizkien banaketa dialektalari dagokionez, Zuazok (1998: 221, 2008: 213) dio *-(r)ik* Zuberoan gorde dela, nahiz eta Nafarroan eta Nafarroa Beherean ere badagoen; *-a* entzuten da Lapurdin, Nafarroa Behere gehiengan, euskara nafarraren ipar-mendebalean eta Gipuzkoako ekialdean. Azkenik, *-ta* mendebaleko eta erdialdeko bereizgarrien artean zerrendatu du. Hizkera batzuetan bi edo hiru atzizkien adibideak aurkitu dira. Esate baterako, Larresoron (Nafarroa Beherea) *-(r)ik* eta *-a* erabiltzen dira batez ere, baina badira *-ta* daramaten “modu adintzondoak” (Epelde 2004: 119-120).

Datu-basearen emaitzak

Euskara Bariazioan (BiV) datu-basean lortutako emaitzek *-(r)ik* eta *-ta* atzizkien banaketa bertsua erakusten dute: *-tak* baiezko erantzunak jaso ditu mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan. Bestalde, *-(r)ik* nagusi da ekialdeko hizkeretan, baita Sakanan ere (Arbizu). Azkenik, bi aldaeratan, bi atzizkien berri jaso da: euskara nafarra eta erdialdeko tarteko aldaera batean (Urdiainen) eta euskara nafarreko ipar-sartaldean (Goizueta).

Aipamenak

- Artiagoitia, Xabier. 1995. «Verbal projections in Basque and minimal structure» *ASJU*, XXVIII-2: 339-504.
- Berro, Ane. 2019a. «Non-verbal participles in Basque and Spanish». In Berro, Ane, Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Basque and Romance. Aligning grammars*. Leiden/Boston: Brill. DOI: https://doi.org/10.1163/9789004395398_005
- Berro, Ane. 2019b. «Basque adjectival participles: stative, resultative or experiential» *Glossa: a journal of general linguistics*, 4(1): 60. DOI: <https://doi.org/10.5334/gjgl.730>. 1-37.
- Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko heskuara*. Iruña / Bilbo: Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.
- Comrie, Bernard. 1976. *Aspect. An introduction to the study of verbal aspect and related problems*. Cambridge: Cambridge University Press.
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Embick, David. 2004. «On the structure of resultative participles in English» *Linguistic Inquiry* 35(3). 355–392. DOI: <https://doi.org/10.1162/0024389041402634>
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.

- Krajewska, Dorota. 2012. «Resultatives in Basque: a diachronic study» *Lingua Posnaniensis* LIV(2). 56–67. DOI: <https://doi.org/10.2478/v10122-012-0014-0>
- Krajewska, Dorota. 2013a. *The diachrony of resultative constructions in Basque*. Vitoria-Gasteiz: University of the Basque Country (UPV/EHU) MA Thesis.
- Krajewska, Dorota. 2013b. «Euskarazko egitura erresultatiboaren diakronia [The diachrony of the resultative structure in Basque]». In Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (eds.), *3rd Conference of the Luis Michelena Chair*, 264–274. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU Editorial Services.
- Rebuschi, Georgés. 1984. *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- Zuazo, Koldo. 1998. «Euskalkiak, gaur» *FLV* 30: 191-233.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

iii.3. Denbora/leku modifikazioa partizipiozko predikatuekin

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Denbora/leku modifikazioa partizipiozko predikatuekin. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=61&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditza, aspektua, modifikatzaileak, partizipiozko egiturak

Deskribapena

Partizipio erresultatiboak partizipio burutu soila baino konplexuagoak dira morfologikoki (-a, -(r)ik zein -ta atzizkia izaten dute), eta partizipio burutuak ez bezala adiera erresultatiboa izaten dute gehienetan (1). Alegia, gertaera baten ondorengo eta ondoriozko egoera bat ematen dute aditzera (ikus 33. ezaugarria).

(1)	Nire	kotxea	konpondua	dago
	nire	kotxea.ABS	konpondu.PTCP.RES	(3ABS).egon

(1) adibidean, kopularen subjektua, *nire kotxea*, egoera batean dago, *konpondua*, eta egoera hori aditzak adierazten duen gertaeraren ondorio da, alegia, baten batek kotxea konpondu izanaren ondorio.

Horrelako partizipio erresultatiboek kategoria nahasia dutela esten da, aditzen eta adjektiboan ezaugarriak erakusten baitituzte. Esan dugun bezala, gertaera bat eta egoera bat adierazten dute,

aditzek eta adjektiboen, bakoitzak bere aldetik, egiten duten bezala. Gainera, banaketa sintaktikoan ere bien ezaugarriak aurkitzen ditugu. Esate baterako, partizipio hauek *egon* kopularekin ager daitezke (1), aditzak ez bezala eta adjektiboen antzera. Bestetik, aditzak bezala, gertaera modifikatzen duten moduzko adberbioekin bateragarriak izaten dira. Horrez gain, hizkera batzuetan, partizipio erresultatiboak gertaera leku eta denbora jakin batean kokatuko duten modifikatzaileekin onargarriak dira (Berro 2019ab).

(2)	Nire	kotxea	(atzo	goizean	Joxeren	garajejan)
	nire	kotxea.ABS	atzo	goizean	Joxeren	garajejan
	konpondua	dago				
	konpondu.PTCP.RES	(3ABS).egon				

(2) adibidean, *nire kotxea*, *konpondua* egoeran dago, (1) adibidean bezala. Gainera, egoera horretara eramane duen gertaerak kokapen zehatz bat dauka denbora eta espazioan; *atzo goizean* eta *Joxeren garajejan*. Banaketa hori aditz arruntek erakusten duten modukoa da.

Krajewskak (2012, 2013ab) (2) bezalako modifikazioa duten partizipiozko egiturak perfektutzat hartu ditu, eta haren esanetan, XIX. mendetik aurrera ugartuz joan dira euskaraz idatzitako testuetan.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean lortutako emaitzei dagokienez, (2) bezalako partizipiozko egiturek baiezko erantzuna jaso dute han-hemenka, batez ere mendebalean eta erdialdean, baina baita ekialdeko aldaera batzuetan ere (Goizuetan, Orbaitzetan eta Urdiñarben).

Aipamenak

- Berro, Ane. 2019a. «Non-verbal participles in Basque and Spanish». In Berro, Ane, Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Basque and Romance. Aligning grammars*. Leiden/Boston: Brill. DOI: https://doi.org/10.1163/9789004395398_005
- Berro, Ane. 2019b. «Basque adjectival participles: stative, resultative or experiential» *Glossa: a journal of general linguistics*, 4(1): 60. DOI: <https://doi.org/10.5334/gjgl.730>. 1-37.
- Krajewska, Dorota. 2012. «Resultatives in Basque: a diachronic study» *Lingua Posnaniensis* LIV(2). 56–67. DOI: <https://doi.org/10.2478/v10122-012-0014-0>
- Krajewska, Dorota. 2013a. *The diachrony of resultative constructions in Basque*. Vitoria-Gasteiz: University of the Basque Country (UPV/EHU) MA Thesis.
- Krajewska, Dorota. 2013b. «Euskarazko egitura erresultatiboaren diakronia [The diachrony of the resultative structure in Basque]». In Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (eds.), *3rd Conference of the Luis Michelena Chair*, 264–274. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU Editorial Services.

iii.4. Iraganaldiko adizki analitikoak adizki sintetikodun aditzekin: *ekarri nuen, ekartzen nuen (v nekartzan)*

Egilea: Itziar Mendizabal

Nola aipatu: Mendizabal, Itziar. (2022). Iraganaldiko adizki analitikoak adizki sintetikodun aditzekin: *ekarri nuen, ekartzen nuen (v nekartzan)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=3&e=66&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, burutugabea, forma sintetikoak, perfektiboa

Deskribapena

Ekintzen edo prozesuen adierazpenean eta deskribapenean, besteak beste denbora eta aspektua bereizten dira. Denborari dagokionez, lehenaldi, orainaldi eta geroaldiaren arteko bereizketa egiten da, eta aspektua burutua, ez-burutua edo prospektiboa izan daiteke. Denbora eta aspektua hainbat modutan konbinatu daitezke, eta konbinazio horien ondorioz, hainbat denbora eta aspektu irakurketa sortzen dira, esate baterako, lehenaldi burutua (1) eta lehenaldi ez-burutua (2). Aspektu burutua adierazteko partizipioa (aditzoinaren arabera *-tu*, *-i* edo *-ø* amaieraduna) erabiltzen da (1), eta ez-burutua adierazteko, berriz, *-t(z)en* aspektu marka (2) (Berro 2015; Euskaltzaindia 1997, 2021).

(1)	Ate ate	nagusitik nagusi.ABL	sartu sar.PTCP	ziren 3PL.ABS.izan.PST
(2)	Ate ate	nagusitik nagusi.ABL	sartzen sar.IPFV	ziren 3PL.ABS.izan.PST

Aspektu burutuak esanahi erresultatiboa (*Paretak tindatu ditut*) edo perfektua (*Irailaren 11ko atentatuek munduko politika guztiz aldatu dute*) izan ditzake, eta iraganaldi hurbilari erreferentzia egiteko ere erabil daiteke (*Gaur goizean ikusi zaitut*) (Euskaltzaindia 2021). Aspektu ez-burutuak, aldiz, ekintza baten izaera errepikakorra (*Askotan etortzen dira*) edota mugagabea (*Mutil hura ezagutzen dut*) adierazi dezake (Euskaltzaindia 1997, 2021; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003); baita ohitura ere (*Egunero joaten dira parkera*) (Euskaltzaindia 2021).

Lehenaldiko adizki sintetikoak XV. eta XVI. mendeetan aspektu irakurketa burutua adierazteko erabil

bazitezkeen ere (Mounole 2011), gaur egun interpretazio ez-burutua besterik ez dute, eta adierazi nahi den irakurketaren arabera hautatzen da forma sintetikoa ala forma analitiko ez-burutua. Oro har, balio edo irakurketa errepikakorra edo ohiturazkoa adierazteko, forma analitiko erabiltzen da, forma sintetikorik ez duten aditzekin bezala (2). Balio puntukarirako, ordea, forma sintetikoa erabiltzen da (3) (Berro 2015).

(3)	Hori	gertatu	zenean,	etxean	nengoen	
	hori	gertatu	zen.POST	etxea.INE	1SG.ABS.egon.PST	

Mounolen (2011) arabera, XV. mendetik XVIII. mendera bitartean adizki sintetikoaren kopurua erdira murriztu zen, eta galera handiena ebentua adierako predikatuen artean gertatu zen. Mendetako joera horri jarraituz, zenbait hizkeratan *egon*-en hirugarren pertsonako adizkia eta *izan* aditzaren adizkiak salbuesita, lehenaldiko adizki sintetikoak ia galdu dira. Izan ere, adineko hiztunek baino ez dituzte erabiltzen. Adizki sintetiko horien ordez, forma analitiko burutuak erabiltzen dira aspektu irakurketa ez-burutua izan arren (4) (Arretxe 1994; Euskaltzaindia d.g.; Zuazo 2014):

(4)	Hori	gertatu	zenean,	etxean	egon	nintzen
	hori	gertatu	zen.POST	etxea.INE	egon.PTCP	1SG.ABS.izan.PST

Horrez gain, Euskaltzaindiak (d.g., 2021) eta Zuazok (2014) jaso dutenez, beste hizkera batzuetan lehenaldiko adizki sintetikoaren ordez forma analitiko burutugabeak erabili ohi dira (5):

(5)	Hori	gertatu	zenean,	etxean	egoten	nintzen
	hori	gertatu	zen.POST	etxea.INE	egon.IPFV	1SG.ABS.izan.PST

Banaketa dialektala

Badirudi (4) adibideko hizkera eredu mendebalean jasotzen dela (Arretxe 1994; Euskaltzaindia d.g.; Zuazo 2014); zehatzago, sartaldeko azpieuskalkian eta Busturialdeko eta Durangaldeko tarteko hizkeretan (Zuazo 2014). Hala eta guztiz ere, Zuazoren (2014) sailkapenaren arabera, euskara nafar-lapurtarraren sortaldeko azpieuskalkian kokatuta dagoen Izturitze inguruan ere jaso da (4) adibidea EHHAn (Euskaltzaindia d.g.).

(5) adibidekoa, berriz, iparraldeko hizkera batzuetan gertatzen dela dirudi (Euskaltzaindia d.g., 2021; Zuazo 2014); hain zuzen ere, euskara zuberotarrak hartzen duen eremu gehienez lekukotzen da (tarteko hizkeran izan ezik); baita Sara inguruan (euskara nafar-lapurtarraren sartalde euskalkiko hegoaldean) eta Oztibarre eskualdean ere (euskara nafar-lapurtarraren sortaldeko ekialdean) (Euskaltzaindia d.g.; Zuazo 2014).

Datu-basearen emaitzak

(4) adibideari dagokionez, datu-basean jaso diren datuak bat datoz aurretik beste autore batzuek (Arretxe 1994; Euskaltzaindia d.g.; Zuazo, 2014) ondorioztatu dutenarekin, hau da, lehenaldiko forma sintetikoaren ordez forma analitiko burutuak erabiltzen direla mendebaleko sartaldeko azpieuskalkian (Artean, Getxon, Loian eta Mungian) eta Busturialdean (Gernika-Lumon eta Otxandion). Esan beharra dago Durangaldeko daturik ez dela jaso datu-basean eta, beraz, ezin dela ondorioztatu ea gune horretan ere datuak bat datozen. Horrez gain, Ziburun ere jaso da (4) adibidea, baina ez Izturitze inguruan (Oragarren, zehatzago esateko), EHHaren (Euskaltzaindia d.g.) emaitzak ikusita esperoko genukeen bezala. Posible da hizkera berezitua kostaldera mugitu izana, baina udalerrri bakarrean lekukotzea ez da nahikoa ondorio horretara heltzeko.

Bestalde, lehenaldiko adizki sintetikoaren ordez forma analitiko burutugabeak erabiltzearen ezaugarria (5) ez da datu-basean inon jaso. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi hizkera-eredu hori desagertu denik. Azken finean, euskara zuberotarra erabiltzen den herri bakarreko datuak jaso dira, Urdiñarbekoak hain zuzen ere, eta hor ez da (5) adibideko hizkera-eredua jaso. Nolanahi ere den, Urdiñarbe geografikoki tarteko hizkera erabiltzen den eremutik gertu dago, eta bertan, aurreko autoreek ere ez dute halakorik jaso (Euskaltzaindia d.g.).

Aipamenak

- Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Berro, Ane. 2015. *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. d.g.. 4414: *EGON [+pas., ni] / EGON [+pas., ni] / EGON [+past, ni]*». Euskararen Herri Hizkeren Atlas.
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina (eds.). 2003. *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Mounole, Céline. 2011. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

iii.5. Aspektu burutugabearen marka (-ten, -etan, -tuten, -iten, -ketan)

Gako-hitzak

aspektua, burutugabea, inesiboa, nominalizazioa

Deskribapena

Euskarazko forma analitiko burutugabeetan aditzoinari aspektu marka bat gaineratzen zaio, *-ten* edo *-tzen*, partizipioaren amaieraren arabera. Aditzaren partizipiozko forma *-n-z* edo *[s,z,ts,tz]i-z* amaitzen denean, *-ten* azaltzen da burutugabeen (1a), eta gainerako aditzetan, *-tzen* (1b).

(1a)	Ura	edaten	dut
	ura.ABS	edan.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG
(1b)	Baloia	botatzen	dut
	baloia.ABS	bota.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG

Aspektu marka burutugabea morfologikoki zati txikiagotan bana daitekeela proposatu izan da: *-te-* edo *-tze-* morfema izengilea eta *-n* inesibo marka. Horrekin lotuta, Mounolek (2011) proposatu bezala, pentsa liteke gaur eguneko aspektu burutugabearen marka jatorriz progresibotasuna adierazteko erabiltzen zela, eta gero balio burutugabe orokorra hartuz joan zela.

Nolanahi ere den, aldaera batzuetan, beste aspektu marka batzuk ere badira, aditzen partizipioaren arabera aldatzen direnak. Euskara Bariazioan (BiV) datu-basean, zazpi hizkera ereduren berri jaso da. Zazpi horiek, baina, hiru taldetan bana ditzakegu: lehen bostak mendebalean oro har, edo mendebaleko aldaera batzuetan aurkitzen dira; seigarrena, mendebaleko hizkera jakin batzuetan bakarrik, eta zazpigarrena ipar-ekialdeko hizkeretan eta Nafarroako ipar-mendebaleko hizkera batzuetan.

Lehenengoan, *-ten* erabiltzen da baita aditzaren partizipioa *-a*, *-e*, *-o*, *-gi*, *-ki* eta *-[l, n, r]i-z* ere amaitzen denean. Esate baterako, *botatzen*, *betetzen*, *joten*, *jagiten*, *eukiten*, *ibiltzen*, *ipintzen* eta *ekarten* esaten da hizkera horietan (Zuazo 2008: 79) (2). Hortaz, eredu honetan, *-ten* markaren erabilera eredu orokorrean baino hedatuago dago aditzetan. Konparatu (1b) eta (2).

(2)	Baloia	botatzen	dot
	baloia.ABS	bota.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG

Bigarrenean, *-etan* atzizkia aurkitzen dugu aditzaren partizipioaren amaiera *-a* eta *-e* direnean.

(3)	Basua	urez	betetan	dot
-----	-------	------	---------	-----

basoa.ABS	ur.INS	bete.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG
-----------	--------	-----------	---------------------

Hirugarrenean ere, *-etan* atzizkia ageri da, oraingoan aditzaren partizipiozko formaren amaiera *-au* denean (adib. *kauntau* partizipiozkoan, *kantetan*)

(4)	kantetan	dot	
	kanta.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG	

Ikus daitekeenez, aspektu burutugabea adierazteko erabiltzen den atzizki horretan (*-etan*) ez dira morfologikoki bereizten izengilea eta inesiboaren marka.

Laugarren hizkera ereduan, *-ten* markaren hedadura zabalagoa da, eta *-au* partizipio amaiera duten aditzetan agertzen da. Konparatu (4) eta (5).

(5)	kantaten	dot	
	kanta.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG	

Bosgarren hizkera ereduan, *-tuten* da erabiltzen den aspektu burutugabearen marka, baldin eta partizipioa *-tu*, *-atu*, *-itu* eta *-idu-z* amaitzen bada.

(6)	apurtuten	dot	
	apur.IPFV	(3ABS).edun.1SG.ERG	

Seigarren hizkera ereduan, *-ketan* da aspektu mugagabea adierazteko erabiltzen den marka, partizipioa *-atu*, *-itu* eta *-tu-z* amaitzen denean eta bi silaba baino gehiago dituenen (Erostarbe 1995). Gainera, badirudi *-ketan* sarri erabiltzen dela aditza eratorria denean. Esate baterako, (6) adibidean, *haserratu* aditza *haserre* adjektiboa izango luke oinarri, eta *-ketan* aspektu marka hartzen du mugagabea.

(7)	haserraketan	da	
	haserre.IPFV	(3ABS).izan	

Atzizki honetan, morfema izengile bat *-keta-* eta inesibo marka bereiz daitezke. Eratorpen morfema moduan, *-keta* ekintza izenak eta ugaritasuna adierazten duten izenak sortzeko erabiltzen da euskaraz (adib. *zezenketa*, *jendeketa*) (Trask 1996).

Zazpigarren eta azken hizkera ereduan, *-iten* da aspektu marka burutugabea, batez ere partizipioa *-n-z* amaitzen denean (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 117).

(8)	Etxean	egoiten	naiz
	etxea.INE	egon.IPFV	1SG.ABS.izan

Banaketa dialektala

Lehenik aipatutako bost hizkera ereduak (1-6) mendebalekoak dira. Zuazoren (2008) arabera, laugarren hizkera ereduak Bizkaiko ipar-sartaldean eta kostaldeko hizkera guztietan dago. Gainerakoak, mendebalean aurkitzen dira oro har.

Zuazoren (2017: 121) arabera, mendebaleko hizkera batzuetan erabiltzen da seigarren hizkera ereduko *-ketan* marka, zehazki, Debagoienean. Bestetik, Erostarbek (1995), haren berri eman du Oñatiko aditz izenen inguruko azterketan eta partizipioa *-atu* edo *-tu* amaiera duenean gertatzen dela zehaztu du. Elortzak (1995) *-ketan* aurkitu du Marinen, Arrasaten, Larriñon, Arrasaten eta Oñatin.

Azken ereduak, berriz, ipar-ekialdeko hizkeretan eta Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkera batzuetan aurkitzen dugu nagusiki (Zuazo 2008). Gainera, mendebaleko hizkera batzuetan ere *-iten* markaren berri jaso da, esate baterako Orozkon eta Oñatin (Zuazo 2017: 115, 123).

Datu-basearen emaitzak

Datu-baseko emaitzei dagokionez, banaketa bat dator hein handi batean aurreko lanetan jasotakoarekin. Lehen hizkera ereduak, bigarrenak eta hirugarrenak baiezko erantzuna jaso dute mendebaleko sartaldeko hizkeretan (Getxon, Loiu, Mungian eta Artea), tartekoetan (Gernikan eta Otxandion) eta sortaldeko ekialdeko hizkera batean (Aramaion), ez ordea sortaldeko beste hizkera batzuetan (adib. Mallabian eta Bergaran). Bosgarren hizkera ereduak banaketa berdintsua du baina Lekeition ere aurkitu da. Laugarren hizkera ereduaren berri, Zuazok (2008) esan bezala, ipar-sartaldean (Getxon, Loiu, Mungian) eta kostaldean (Lekeition) jaso da.

Seigarren hizkera ereduari dagokionez, *-ketan* aspektu markak baiezko erantzuna jaso du Aramaion, aurreko lanetan jasotakoarekin bat eginez, eta baita ipar-ekialdeko Larresoron (nafar-lapurterra) eta Oragarren (nafar-lapurterraren eta zuberotarraren tartekoa).

Azkenik, zazpigarren hizkera ereduak, *-iten* aspektu markaren erabilera, Nafarroako ipar-sartaldean (Goizuetan) eta Euskal Herriko ipar-ekialdean (Larresoron, Oragarren eta Urdiñarben) aurkitu da.

Aipamenak

Elortza, Jerardo. 1995. «Aditzaren izen-forma Deba Garaian eta Araba aldean». In Ricardo Gómez and Joseba A. Lakarra (eds.), *Euskal Dialektologiako Kongresua [Supplements of ASJU XXVIII]*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 465-477.

Erostarbe, Amaia. 1995. «Aditz izenak Oñatiko hizkeran». In Ricardo Gomez and Joseba A. Lakarra (eds.), *Euskal Dialektologiako Kongresua [Supplements of ASJU XXVIII]*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 495-517.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

Mounole, Céline. 2011. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.

Trask, Larry. 1996. «On the history of the non-finite verb forms in Basque». In José Ignacio Hualde, Joseba Andoni Lakarra and Robert Larry Trask (eds.), *Towards a History of the Basque Language. Current Issues in Linguistic Theory 131*

. John Benjamins Publishing Company. 207-234.

Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

iii.6. Aspektu prospektiboaren marka: *-(r)en (v -ko)*

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Aspektu prospektiboaren marka: *-(r)en (v -ko)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=22&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, genitiboa, -KO postposizioa, prospektiboa

Deskribapena

Euskaraz geroaldian gertatuko den gertaera bat adierazi nahi denean partizipioari *-ko* atzizkia gaineratzen zaio. EGLU II-ren (Euskaltzaindia 1987 [1997]) arabera, *-ko* aspektu markak [+geroa, -burutu] ezaugarriak ditu, eta hortaz, aspektu marka prospektibotzat har daiteke (Oihartzabal 2003a).¹

(1)	egingo	dugu
	egin.PROS	(3ABS).edun.1PL.ERG

Ikus daitekeenez, partizipiozko forma berrian, testuinguru burutuan erabiltzen den egin partizipioa eta *-go (-ko-ren alomorfoa)* bereiz daitezke. Atzizki hori eta erlazio/leku genitibo atzizkiak homofonoak dira (adib. *mendiko etxea* bezalako sintagma bateko *-ko*) (Hualde 2003b: 206).

Aldaera batzuetan, *-ko* (edo *-go*) erabili beharrean, *-(r)en* atzizkia erabiltzen da partizipio soilak *-n* amaiera duenean (eta baita *hil* partiziparen ondoren ere, Oihartzabal 2003a). Atzizki hori ere genitibo postposizioaren homofonoa da (adib. *mendiaren tontorra* bezalako sintagma bateko *-(r)en*).

(2)	eginen	dugu
	egin.PROS	(3ABS).edun.1PL.ERG

Oharrak:

¹ Batzuetan adiera kontrafaktuala ere adieraz lezake, esate baterako baldintzazko perpausetan.

Horrelako testuinguruak kontuan hartuta, Lakak (1996) *-ko* marka benetan modu irrealia adierazten

duela proposatu du.

Banaketa dialektala

Hizkera eredu hori (2) nagusi da ekialdean (Oihartzabal 2003a), Zuazoren (2008: 212) arabera, mendebalean eta erdialdean *-n* amaierako partizipioetan *-go* gaineratzen da, eta ekialdean, berriz (euskara nafarrean, nafar-lapurtarrean eta zuberotarrean). Dena dela, Zuazok dioenez, Nafarroan *-go* gero eta gehiago hedatzen ari da, batez ere gazteen artean.

Hizkera eredu horretan (2), *-(r)en* aspektu marka prospektiboaren hedadura ez da oso handia hizkuntzaren barruan, partizipio soilaren amaiera *-n* denean bakarrik erabiltzen baita: *egon*, *egin* bezalako aditzetan *egonen*, *eginen* egiten da; beste kasuetan *-ko* erabiltzen da: *etorri* aditzerako *etorriko* esaten da eta ez *etorriren*. Nolanahi ere, badirudi lehenago atzizki hori zabalduago zegoela ipar-ekialdeko hizkeretan bederen (Mounole 2011), eta bokalez amaitutako partizipioetan ere erabiltzen zela. Gaur eguneko banaketa geografikoari dagokionez, zenbat eta ekialderago jo, *-(r)en*-en hedadura handitu egiten da hizkuntzan eta *-tu/-i* amaierako partizipioekin ere erabiltzen da (EGLU II). Datu-basean eredu horri azpizizkera eredutzat hartu dugu (3):

(3)	etorriren	naiz
	etor.PROS	1SG.ABS.izan

Datu-basearen emaitzak

Ezaugarriak datu-basean lortu duen banaketari dagokionez, emaitzek bat egiten dute hein handi batean aurreko lanetan jasotakoarekin. Eredu orokorra nagusi da mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan; hizkera ereduan nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, eta azkenik, azpizizkera ereduak baiezko erantzuna jaso du ekialderen dagoen aztertutako hizkeran, hain zuzen, Urdiñarben, euskara zuberotarrean.

Eztabaida teorikoa

Aspektu marka prospektiboaren eta genitibo postposizioaren sinkretismoan oinarrituz, batzuek *-ko* (edo *-(r)en* aspektu markek jatorrian zentzu destinatiboa zutela proposatu dute (Lafon 1972 [1999]; Oihartzabal 1987, 2003a; Mounole 2011) eta gerora denbora esanahia hartu zutela. Beste hizkuntza batzuetan ere ezagunak dira adposizio destinatiboek izan dezaketen geroaldiko esanahia (Berro 2015), esate baterako, gaztelaniaren [*estar para* + infinitiboa] perifrasi.

Aipamenak

Berro, Ane. 2015. *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Ph.D.

- Diss., UPV/EHU and Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Lafon, René. 1972. «Le suffixe *ke*, *-te* dans la conjugaison basque (suite et fin)». *BSL* LXVII-1, 239-265. Reprinted in Lafon 1999.
- Lafon, René. 1999. «Le suffixe *ke*, *-te* dans la conjugaison basque (suite et fin)». In Jean Haritschelhar eta Piarres Charritton (arg.), *Vasconiana*. Iker 11. Bilbao: Euskaltzaindia. 505-528.
- Laka, Itziar. 1996. *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language*. *Euskararako Errektoreordetza, EHU*. ISBN: 84-8373-850-3.
- Mounole, Céline. 2011. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Michel de Montaigne-Bordeaux III.
- Oyharçabal, Beñat. 1987. *Étude descriptive de constructions complexes en basque: Propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*. Doktore tesia. Paris 7.
- Oyharçabal, Beñat. 2003. «Verbs. Tense, aspect and mood». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 249-284.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

iii.7. Aspektu markaren bikoizketa: *izandu da*, *egondu da*, *itzundu da* (v *izan da*, *egon da*, *itzun da*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Aspektu markaren bikoizketa: *izandu da*, *egondu da*, *itzundu da* (v *izan da*, *egon da*, *itzun da*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=23&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, bikoizketa, nominalizazioa, partizipioa

Deskribapena

Euskaraz, testuinguru burutueta partizipioa osatzeko *-n*, *-tu* (edo *-du*), *-i* edo *-ø* atzizkiak erabiltzen dira. Horrela, *izan*, *apurtu*, *etorri* eta *bete* bezalako partizipioak osatzen dira.

(1)	Ez	dut	arazorik	izan
	ez	(3ABS).edun.1SG.ERG	arazo.PRTV	izan.PTCP

Hizkera batzuetan, partizipio batzuk osatzeko, *-tu* eransten zaio aurreko partizipio markari eta horrela, bi marka desberdin erabiltzen dira. Halakoak, batez ere, *-n* amaierako partizipioetan gertatzen dira: *-n + tu > -ndu*. Ondorioz, *izandu*, *egondu* eta *etzandu* bezalako partizipioak sortzen dira (2). Bestetik, zero partizipio marka ($-\emptyset$) dutenekin ere gerta liteke, esate baterako, *betetu* edo *bizitu* bezalakoetan.

(2)	Ez	dut	arazorik	izandu
	ez	(3ABS).edun.1SG.ERG	arazo.PRTV	izan.PTCP

Banaketa dialektala

Guk dakigula, bikoizketa honen berri ez da dialektologia lanetan jaso. Haddican eta Tsoulasen arabera, ezaugarri hau erdialdeko euskalki batzuetan dago, esate baterako Oiartzunen.

Datu-basearen emaitzak

Datubaseko emaitzei erreparatuta, ikus daiteke ezaugarrien hedadura handiagoa dela eta mendebaletik ekialderaino zabaldua dagoela. Mendebaleko euskalkietan, baiezko erantzuna jaso da Getxon, Loiu, Mungian eta Gernikan, hau da, ipar-sartaldean eta tarteko azpieuskalkiaren iparraldean. Erdialdeko erdiguneko azpieuskalkian, Hernanin, Erreterian, Irunen, eta sortaldeko azpieuskalkian, Irunen eta Imotzen jaso da haren berri. Euskara nafarrean hainbat puntutan aurkitu da, zehazki, Arbizun, Goizuetan, Erroibarren eta ekialdean Orbaitzetan. Azkenik, euskara nafar-lapurtarrean, Ziburun eta Oragarren jaso da baiezko erantzuna, baina ez euskara zuberotarra duen Urdiñarben.

Eztabaida teorikoa

Ikuspuntu sintaktikotik, partizipio markaren bikoizketa modu batera baino gehiagora interpreta daiteke. Haddican eta Tsoulasen (2012) arabera, adibidez, horrelako partizipioetan garbi ikusten da “partizipiozkotzat” ditugun atzizkiak, izatez, funtzio bat baino gehiago izan ditzaketela. Izan ere, Goenagak (1985) eta Artiagoitiak (1995) erakutsi duten bezala, *-n*, *-tu*, *-i* edo $-\emptyset$ amaierako aditzezko formak interpretazio burutua edo perfektiboa ez duten hainbat testuingurutan ager daitezke, besteak beste, geroaldiko adiera duten testuinguruetan (3a), testuinguru ez-jokatueta (3b), aginteran (3c) edota postposizioen osagarrietan (3d) (Haddican eta Tsoulas 2012)

(3a)	izango	da
------	--------	----

	izan.PROS	(3ABS).izan	
(3b)	izan	behar	du
	izan.PTCP	behar	(3ABS).edun.(3ERG)
(3c)	egon	lasai	
	egon.PTCP	lasai	
(3d)	nahiz	gaztea	izan
	nahiz	gaztea	izan.PTCP

Kasu horietan guztietan, ez da atzizkiaren bikoizketarik gertatzen, ezta hala egiten duten aldaeretan ere (Haddican eta Tsoulas 2012).

(4a)	*izanduko	da	
	izan.PROS	(3ABS).izan	
(4b)	*izandu	behar	du
	izan.PTCP	behar	(3ABS).edun.(3ERG)
(4c)	*egondu	lasai	
	egon.PTCP	lasai	
(4d)	*nahiz	gaztea	izandu
	nahiz	gaztea	izan.PTCP

(2) eta (4)ren arteko kontrastea azaltzeko, Haddican eta Tsoulasek proposatu dute *-n*, *-tu*, *-i* edo \emptyset atzizkiek funtzio bikoitza izaten dutela: bata, infinitiboa gauzatzea, eta bestea, aspektu burutua (edo perfektiboa) gaineratzea. (1) eta (2) bezalako testuinguru burutueta, funtzio biak betetzen dira; eta (3) eta (4) bezalakoetan, ordea, bat bakarrik, infinitiboarena, hain zuzen. Hortaz, egile horien arabera, bikoizketa gertatzen da (2) bezalako adibideetan funtzioak banatu egiten direlako: *-n* atzizkiak infinitiboa gaineratzen du eta *-tu* (>*-du*) atzizkiak, aldiz, aspektu burutua. (3)ko eta (4)ko adibideetan, funtzio bakarra gauzatu beharra dagoenez, ordea, ez da bikoizketarik gertatzen eta atzizki bakarra azaleratzen da.

Aipamenak

Artiagoitia, Xabier. 1995. «Verbal projections in Basque and minimal structure» *ASJU*, XXVIII-2: 339-504.

Goenaga, Patxi. 1985. «Complementación y nominalización en Euskara» *ASJU* 19: 493-570.

Haddican, Bill and George Tsoulas. 2012. «A continuum of deficiency for Basque infinitives». In Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare and Myriam Uribe-Etxebarria (eds.), *Noun phrases and nominalizations in Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 437-460.

iii.8. Partizipio burutua indikatibotik kanpo: *etorri dadin*(v *etor dadin*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Partizipio burutua indikatibotik kanpo: *etorri dadin*(v *etor dadin*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=24&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditza, agintera, ahalera, aspektua, partizipioa, subjuntiboa

Deskribapena

Perpau aspektugabeetan eta indikatiboetik kanpokoetan, aditzoina erabiltzen da eredu orokorrean (1), hau da, oro har aspektu burutua duen partizipioari *-tu* edo *-i* atzizkiak kenduta sortzen den forma. Hala egiten da mendeko perpaua subjunktiboetan, agintezkoetan, baita balio potentziala duten perpauetan ere (Euskaltzaindia 1987 [1997]).

(1)	etor	dadin
	etor	(3ABS).edin.COMP

Nolanahi ere den, euskalki batzuetan aditzoina ez da erabiltzen testuinguru horietan, eta haren ordeztan, partizipio burutua (alegia, *-tu*, *-i* amaiera duena) aukeratzen da (Zuazo 2008; Hualde 2003b).

(2)	etorri	dadin
	etor.PTCP	(3ABS).edin.COMP

Aspektu balio buruturik ez duen testuinguru horretan, partizipio burutua erabiltzeak inplikazio morfosintaktikoak baditu. Izan ere, *-n*, *-tu* (edo *-du*), *-i* edo *-ø* amaierako partizipioak ezin dira [+burutu] tasunarekin lotu (cf. EGLU II). Hortaz, aldaera horietako erabilera Goenagak (1985) eta Artiagoitiak (1995) zerrendatutakoei gaineratu behar zaie, hots, partizipioa interpretazio burutua edo perfektiboa ez duen gainerako testuinguruei (ikus 38. ezaugarria).

Pentsa liteke, Haddican eta Tsoulasen (2012) ildotik, *-n*, *-tu* (edo *-du*), *-i* edo *-ø* atzizkiek balio bikoitza dutela; batetik, balio infinitiboa eta, bestetik, aspektu burutuarena. (2) bezalako testuinguruan bigarren izango luke *-i-k*. Bestalde, balio infinitiboaz gain, esan genezake *-tu* (edo *-du*) eta *-i* atzizkiak aditzak sortzeko baliatzen direla eta, beraz, eratorpen atzizki adizgileak direla (ikus Berro 2015 ildo horretako proposamen baterako). Adizgilea besterik ez bada *-i* atzizkia (2) adibidean, erraz

azal liteke hura horrelako testuinguru batean agertzea.

Banaketa dialektala

Hualderen (2003b) eta Zuazoren (2008) arabera, eredu orokorra zaharragoa da eta lehen orokorturik zegoen euskal hizkeretan (ikus Mounole 2011). Orain, baina, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean baino ez da erabiltzen. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako mendebaldean (2) hizkera ereduak da nagusi.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean hizkera ereduak baiezko erantzuna jaso du oro har mendebaleko eta erdialdeko aztertutako aldaera guztietan, baita Gipuzkoako mendebaldekoetan ere. Euskara nafarraren barruan ere bi aldaeratan jaso da: erdialdeko euskalkiaren tartekoa den Imotzeko aldaeran, eta sortaldeko Erroibarren ere bai. Beraz, pentsa genezake apurka-apurka ekialdera zabaltzen ari dela indikatibotik kanpo partizipio burutua erabiltzeko joera (ikus 40. ezaugarria).

Aipamenak

- Artiagoitia, Xabier. 1995. «Verbal projections in Basque and minimal structure» *ASJU*, XXVIII-2: 339-504.
- Berro, Ane. 2015. *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Goenaga, Patxi. 1985. «Complementación y nominalización en Euskara» *ASJU* 19: 493-570.
- Haddican, Bill and George Tsoulas. 2012. «A continuum of deficiency for Basque infinitives». In Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare and Myriam Uribe-Etxebarria (eds.), *Noun phrases and nominalizations in Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 437-460.
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

iii.9. Partzipio burutua predikatu eratorrietan indikatibotik kanpo: *aberetu dadin* (v *abere dadin*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Partzipio burutua predikatu eratorrietan indikatibotik kanpo: *aberetu dadin* (v *abere dadin*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=3&e=25&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz eratorriak, aditza, agintera, ahalera, aspektua, partzipioa, subjuntiboa

Deskribapena

Aditz perifrastikoez edo analitikoek balio subjunktibo, potentzial edo aginterakoa dutenean, aditzoia erabiltzen da eredu orokorrean (1), hau da, aspektu burutua duen partzipioari *-tu* edo *-i* kenduta sortzen den forma. Hala egiten da aditz guztiekin, beste kategorietatik eratorriak izan zein ez.

(1)	Ez	nuke	nahi	Mikel	abere	dadin
	ez	1SG.edun.MOD	nahi	Mikel.ABS	abere	(3ABS).edun.COMP

Joera hori aldatu egiten da aldaera batzuetan aditzaren izaera morfosintaktikoaren arabera. Euskaltzaindiak (2000, 2012) berak *Hiztegi Batuan* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* goiko testuinguruetarako aditzoia zein partzipioa ontzat hartzen ditu aditza beste kategoria batetik eratorria denean. Hizkera eremuan ikus daitekeenez (2), balio subjunktiboa duen menpeko perpaus batean, hizkera batzuetan partzipioa darabilte, aditzoinaren orde. Perpaus horren aditza, baina, izen batetik eratorritakoa da: *abere* (izena) > *aberetu* (aditza).

(2)	Ez	nuke	nahi	Mikel	aberetu	dadin
	ez	1SG.edun.MOD	nahi	Mikel.ABS	abere.PTCP	(3ABS).edun.COMP

Partzipio burutuaren erabilera aditz eratorrietan indartzeak pentsaraz lezake *-tu* eta *i* atzizkien funtzio bakarra ez dela aspektu burutua adieraztea. Haddican eta Tsoulasen (2012) arabera, atzizkiok bi balio lituzkete: infinitiboa eta aspektu burutuarena (ikus 38. ezaugarria). Bestalde, Berrok (2015) proposatu du, aspektu markak izateaz gain, atzizkiok adizgileak direla, hau da, beren funtzioa aditzak sortzea dela (de Rijk 2008). Ildo horretatik, erraz uler daiteke *-tu* atzizkia (2) moduko testuinguru batean

agertzea, hots, aspektu balio buruturik ez duen perpaus batean, eta aditezkoak ez diren erroei lotuta.

Banaketa dialektala

Hualdek (2003) eta Zuazok (2008) ohartarazi duten bezala, aditzoinaren erabilera goian adierazitako testuinguruetan (1) ekialdeko euskalki batzuetara mugatzen da gaur egun, eta hala jaso dugu Euskara Bariazioan (BiV) datu-basean ere (ikus 39. ezaugarria). Izan ere, mendebaleko eta erdialdeko aldaeretan, baita hizkera nafar batzuetan ere, partizipio burutua erabiltzen da, nahiz eta testuinguru horietan aditzak ez duen aspektu balio buruturik.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean jaso ditugun emaitzen arabera, horrelako testuinguruetan partizipio burutua erabiltzeko joera hedatu samar dago euskal hizkeretan. Ipar Euskal Herriko bi hizkeretan izan ezik -nafar-lapurterako Larresoroko hizkeran eta zuberotarreko Urdiñarbeko hizkeran-, gainerako aldaeretan baiezko erantzuna jaso du (2) hizkera ereduak. 39. ezaugarriaren hedadurarekin alderatzen badugu, ikus daiteke aditz eratorrien kasuan partizipioa erabiltzeko joera zabalduago dagoela aditza ez-eratorria denean baino. Izan ere, hainbat hizkera nafarretan (esate baterako, Arbizun eta Baztanen) eta nafar-lapurtarretan (Ziburun eta Oragarren) ez dute partizipio burutua erabiltzen subjunktiboan, aginteran edo potentzialean, aditza eratorria ez bada.

Aipamenak

- Berro, Ane. 2015. *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Euskaltzaindia. 2000. *Hiztegi Batua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2012. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Haddican, Bill and George Tsoulas. 2012. «A continuum of deficiency for Basque infinitives». In Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare and Myriam Uribe-Etxebarria (eds.), *Noun phrases and nominalizations in Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 437-460.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

